

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresa martxan jartzen ari den enpresa bat denez, bezeroak ondo zehazteaz gain, garrantzitsua izango da negozioak funtzionatzeko behar dituen hornitzaileak eta harremanak identifikatzea. Aliantzen helburu nagusiak kostuak murriztea, enpresak egonkortasuna izatea eta lanerako beharrezko baliabideak lortzea dira.



Proiektua aurrera eramateko, beharrezkoa izango da ingurumenarekin eta energiarekin lotuta dauden erakundeekin harremanak izatea, hala nola ikerketa-zentroekin edo energia berriztagarrien arloko enpresekin. Horrez gain, algak lantzeko eta erregai bihurtzeko prozesuan, laborategien eta materiala eskaintzen duten enpresen laguntza beharko dugu.

Gure beharrak eta ingurunea kontuan hartuta, hainbat hornitzaile izango ditugu, adibidez algak hazteko beharrezkoak diren materialak ematen dituztenak, erabiliko dugun makineria eskaintzen dutenak eta ekoizpen-prozesurako beharrezkoak diren baliabideak hornitzen dituztenak.

- 1. Ikerketa-zentroak:** Algak lantzen dituzten ikerketa-zentroekin aliantzak egingo ditugu. Haien instalazioak eta profesionalak erabiliko ditugu algak hazteko eta aztertzeke. Horrela, beharrezkoak diren materialak, ezagutza eta baliabideak errazago lortuko ditugu.



- 2. Energia berriztagarrien enpresak:** Energia berriztagarrien arloan lan egiten duten enpresekin harremanak izango ditugu, gure proiektua aurrera eraman ahal izateko. Enpresa horiek laguntza emango digute beharrezkoak diren makineria eta baliabideak lortzeko, algak erregai bihurtzeko ekoizpen prozesuan parte hartzeko eta azken produktua merkatura eramateko.

- 3. Material eta makineria hornitzaileak:** Algak hazteko behar ditugun materialak eta makineria emango



dizkiguten enpresak beharko ditugu. Enpresa hauek, algak erregai bihurtzeko prosezuan erabiltzen diren tresnak eta laguntza teknikoak ere emango digute, horrek gure ekoizpena errazago egingo du, segurtasuna emanez.



Proiektu honetan lanak modu ezberdinetan banatuko dira, proiektuaren helburuak modu eraginkorrean lortzeko, atal bakoiztak funtzio zehatz bat izango du, ekoizpen prosezua, marketina eta teknologia barne hartuz.

Unax Casanova – Lan Harreman eta Giza Baliabideak

Hasteko, Unaxek lan harreman eta giza baliabideetako gradua ikasi nahi du. Nortasunaren aldetik, pertsona lagunkoia da, taldekidea ondo koordinatzen du, eta antolatzaile ona da. Gainera, langileen kudeaketa eta motibazioa ezagutzen ditu, eta horregatik, enpresako barne-ikastaroak, prestakuntza saioak eta talde-lanak antolatzeaz arduratuko da, baita langileen ongizatea eta lan giro ona bermatzeaz ere.

June San Roman – Ekoizpen Teknikoa

June ingeniari kimikoa da, bioerregaien ekoizpenean espezializatua. Algak hazteko fotobioreaktoreak eta biomasa prozesatzeko makineria zaintzeaz arduratzen da. Bere ezagutza teknikoari esker, ekoizpen-prozesua optimizatzea, kalitatea kontrolatzea eta energia sortzeko sistemak koordinatzea izango da bere zeregina, ekoizpena etengabea eta segurua izateko.

Julene Rodriguez – Marketina eta Salmentak

Julenek marketin eta salmentetako espezializazioa du. Pertsona sutsua eta komunikatiboa da, eta bezeroekin harreman zuzenak izatea gustuko du. Algaz sortutako bioerregaiak merkatuan nola aurkeztu, bezero berriak erakartzea eta ekoizpenaren eskaerak kudeatzea izango da bere ardura nagusia, baita enpresa-elkarteekin lankidetzan harremanak sortzea ere.

Malen Larrañaga – I+G eta Teknologia

Malen biologoa eta bioingeniarria da, alga-prozesuetan aditua. Proiektuaren ikerketa eta garapena zuzenduko du, patenterako teknologia berriak garatuz eta prozesuak hobetuz. Gainera, laborategian esperimentuak egingo ditu eta ekoizpen prozesuak etengabe optimizatzea eta kalitate estandarrak betetzea bermatuko du.

Irati Diaz– Mantentze eta Logistika

Iratirekin, proiektuaren mantentze eta logistikako arduraduna dugu. Algak hazteko sistemak, fotobioreaktoreak eta biltegiatze sistemak etengabe zaindu eta mantentzea izango da bere zeregina, baita produktuak bezeroengana denbora eta segurtasunez iristea ere. Antolatzaile aparta da, eta arazo teknikoak azkar konpontzen ditu.